



Getxoko DYAk 1992. urtean zabaldu eban Negubide kaleko egoitzea, Areetan auzoan.

Gelditu, eta lagundu

30 URTE BEHARREAN. Juanjo Bidea Getxoko DYAk arduraduna da; leioarra erakundean sartu zantetik 30 urte beteko dira asteen

Veronica Muñoz |

Getxoko DYAk 12 urte bete dauz aurton; urte guztietan Juanjo Bidea beharrean ibili da, zerbitzu horren ardurapean. Leioan jaio zan Juanjo, 1933 urtean, baina ezkondu zantetik Getxon bizi da; izan be, berak azaltzen dauen lez, «getxotarra eta leioarra naz, neure bihotza herri bien artean bananduta daukadalako».

Juanjo Bideak DYAn lehenengo urratsak emon ebazantetik 30 urte beteko dira asteen; urteotako balantzea egiterakotan, «on-ona» dala dino gizonak: «30 urteotan behar handia egin dot, eta hori jakitea neuretzat harro egoteko arrazoa da, ez

dot besterik behar; jentea lagundu dodala jakitea jaso neiken saririk handiena da, ezelan-go duda barik».

Getxoko DYAk 1989 urteko uztailaren 1ean egin eban laguntzea eskaintzeko lehenengo urteerea. Orduan anbulantzia bakarra eukien, Juanjok egin-dako deiari esker lortutakoa, herritarren laguntzeagaz.

Anbulantzia bakarra, hasieran

Sasoi haretan bost lagun ibiltzen ziran Getxoko DYAn: Juanjo eta semea gidariak ziran, eta medikuntzea ikasten ebiltzan hiru lagunak behar egiten eben zerbitzu barrian. Areetako Andres Larrazabal kalean egoan beti anbulantzia; «baliabide gi-

txi, baina ilusino handia genduzan», azaltzen dau Juanjok.

Getxoko DYA sortu zantetik gauzak asko aldatu dira; gaur egun, Negubide kaleko egoitzea ezeze, bost anbulantzia, zerbitzu medikoa emoteko hiru anbulantzia, eta gizarte laguntzea eskaintzeko auto bi be badaukaz udalerriko DYAk. Horrezaz ganera, Areetako Antigu Golf auzoan sorosleen egoitzea zabaldu eben orain dala 9 urte, eta proiektu barriak be ez dira falta: asmoa da Negurin eguneko zentro bat martxan ipintea, eta helburu hori lortzeko lehenengo urratsak emoten dabilz egunokaz.

Boluntarioen ezea da DYAk gaur egun daukan arazorik la-

ESANAK

JUANJO BIDEA

(Getxoko DYAk arduraduna)

«Getxoko DYAn daukaguzan baliabide guztiak lortzeko jentearen laguntzea ezinbestekoa izan da»

«Beharragaitik jasotako saririk handiena jentea lagundu dodala jakitea da, eta ez dot beste gehiagorik gura»

«Boluntarioa izateko grinea barruan eroan behar dozu, eta ganera behar egiteko gogo handia euki behar da»

rriena, Getxoko egoitzearen arduradunak azaltzen dauenez: «mundu osoan gobernuz kanpoko erakunde guztiek daukien arazoa da hori; izan be, azken urteotan borondetako beharra eskaintzeko grinea desagertzen doa, eta gero eta boluntario giti-xiago dagoz».

Gero eta boluntario giti-xiago

Orain dala urte batzuk, esate baterako, Getxoko DYAk 130 boluntario inguru eukazan, eta gaur egun 70 gazte dabilz beharrean: «gazteen alde egin gura izan dot beti, eta euren alde gauza onak esateko arrazoi asko daukadaz, hemendik igaro diran gazteak ikusi eta gero. Dana dala, egia da gaur egun gazteak, eta gizakide guztiak orokorrean gurekoiak bihurtzen ari garana, eta hori hemen be nabarmentzen da».

«DYAk boluntarioen ezaugarriak? Danetarik dago, baina jente gaztea izaten da, eta gehienak medikuntzea ikasten dagozan gazteak dira». Eurentzat, Juanjoren azalpenetan, «ona da hemen behar egitea, asko ikasten dabe eta». Boluntarioa izan gura dauenak «behar egiteko gogo handia euki, eta egiten dauena barru-barruan eroan behar dau», dino Getxoko DYAk arduradunak.

Areetako egoitzatik igaro diran gazteen ganean berba egitean, Juanjo Bidea harro-harro dagoala berehala igertzen da: «hemen oso giro polita sortu dogu, lagun handiak egin dodaz eta hori da niretzat garrantzitsuena; gazteen artean be hartu-emon estuak sortu dira, eta hemen ezagutu eta gero ezkondu diran bikote batzuk be badagoz». Juanjok. amaitzeko, gauza bat argi itxi gura izan dau: «DYAk esangurea gelditu eta lagundu da, laguntza horren truke ezer espero barik».

GETXO

47.000 pertsona baino gehiagok hartu dabe parte Nazinoarteko Folk Jaialdian

V.M. |

47.000 pertsona baino gehiagok hartu dabe parte aurton Nazinoarteko Folk Jaialdiaren barruan egindako ekialdietan, Getxoko Kultur Etxeak atzo egindako balantzearen arabera. Datuok kontuan hartuta, «Folk Jaialdiaren edizinoarik arrakastatsuenetako bat izan dala esan leiteke», jaialdiaren arduradunak azalpenetan.

Aurreko urteakaz alde-ratuta, jentearen parte hartzea askoz handiagoa izan da. Izan be, igaz 26.000 herritar joan ziran gertautako kontzertuetara, eta aurton barriz 32.000 entzule izan dira, igaz baino 6.000 lagun gehiago hain zuzen be. Guztira 12 kontzertu izan dira, irailaren 5etik 10era bitartean, Areetako Geltoki plazan, eta Erromoko Santa Eugenia.

Kepa Junkerak bere azken beharra aurkezteko egindako kontzertua, eta Munduko Medikuek Go-bernuz Kanpoko Erakundeagaz (GKE) batera prestaturiko *Munduko Terrazak* izan dira ekitaldirik arrakastatsuenak, jaialdiaren arduradunak azalpenetan. Horrezaz ganera, 5.000 herritar inguruk bisitatu dabez jaialdiaren barruan antolatutako azokak.

Datorren urtean, pantaila erraldoia gauero

Gaueko kontzertuek jaso dabe publikoaren erantzunik onena, Folk Jaialdian urtero izaten da. Aurton, ganera, Areetan egokitutako karpa erraldoia ezeze, Kepa Junkeraren kontzertua ikusi ahal izateko pantaila erraldoia egokitu dabe, eta erantzuna be on-ona izan da.

Hori dala eta, datorren urtean gaueko kontzertu guztiak ikusteko pantaila hori ipintea aztertzen dabilz Getxoko kultur etxe-koak. Izan be, karpea kontzertua hasi baino askoz lehenago bete da egunero; sartu barik geratzen diran lagun guztiok kontzertua ikusi daien ipini gura dabe pantaila erraldoia, hain zuzen be.